

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAZKO UDALA

Urkabustaiz 2024 udalerriko herrietako herriko jaiak eta/edo erromeriak antolatzeke dirulaguntza deialdia

BDNS (Identif.): 800325.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/800325>).

Laburpena, 2024ko azaroaren 27an egindako osoko bilkuraren erabakiarena. Bertaratutako kideek aho batez erabaki zuten, besteak beste, 2024an Urkabustaiz udalerriko herrietako herriko jaiak eta/edo erromeriak norgehiagoka-prozeduraren bidez antolatzeke dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza onartzea (375/2024 espedientea).

Lehenengoa. Erakunde onuradunak

Urkabustaizko udalerrian legez eratuta eta erregistratuta dauden toki-erakunde txikiak izan daitezke dirulaguntza hauen onuradun.

Bigarrena. Diruz lagungarri diren programak

Herriko jaiak eta/edo erromeriak sustatzea Urkabustaizko udalerrian.

Kultura- eta kirol-jarduerak, aisialdikoak eta elkertasun-, tolerantzia- eta genero-berdintasunaren balioak sustatzen dituztenak.

Ez dira diruz lagunduko lunch, afari edo antzekoei dagozkien gastuak.

Hirugarrena. Oinarria arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 70.2 artikuluetan jasota daude.

Dirulaguntza hauek norgehiagoka bidez emango dira. Horretarako, aurkeztutako eskabideak erkatuko dira, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera eskabide horien arteko erlazioa ezartzeko. Horretarako, helburu horretarako aurrekontu-partidan ezarritako muga erabiliko da.

Laugarrena. Laguntzak banatzeko irizpidea eta zenbatekoa

Deialdi honen arabera aurkeztutako eskabideen ondorioz ematen diren laguntzen finantzaketa 3380434000 aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio, 2024rako aurrekontuko "Dirulaguntza finkoak- Administrazio Batzarrak" kontzeptupean.

Dirulaguntza zehazteko eta dirulaguntzaren zenbatekoa finkatzeko balorazio-irizpidea honako hau izango da:

Zenbatekoa honako hauen arabera aztertuko da: egindako eskaerak, erakunde eskatzaileko biztanle-kopurua eta aurrekontu-partidaren zuzkidura.

1. Aurrekontua dirulaguntza eskatzen duten batzordeen artean banatuko da, formula hau erabiliz:

$X = \text{Aurrekontu-partidaren zenbatekoa (PZ)} \times \text{Eskatzaileak haztatzeko faktorea (HF)} \text{ zati eskatzaileak haztatzeko faktore guztien batura (FB).}$

$$X = \frac{\text{PZ} \times \text{HF}}{\text{FB}}$$

Biztanle kopurua	Haztatzea
— 500	0,25
— 501 - 1.000	0,50
— 1.001- 1.500	0,75
— 1.501- 2.000	1

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste erakunde batzuen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batera, ezin izango da izan elkarte edo erakunde onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

Onartutako dirulaguntza berrikusi ahal izango da, gastuaren finantzaketa beste erakunde batzuen laguntzen ekarpen osagarrien bidez ezagutu ondoren, bai eta, hala badagokio, bestelako diru-sarreraren bidez ere.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskabideak eta zazpigarren oinarrian eskatutako agiriak aurkezteko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epez kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira kontuan hartuko.

Eskaera eta dokumentazioa udalaren sarrera-erregistroan aurkeztuko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

Seigarrena. Dokumentazioa

1. Eskabide ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.

2. Diruz lagundutako jarduera edo jarduerak egiteak eragindako gastuen egiaztagiriak: fakturak edo froga-balioa eta baliokidea duten kontabilitate-agiriak: jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.

Gastuen justifikazio gisa ez dira onartuko honako datu hauek argi identifikatuta ez dituzten ordainagiriak, fakturak, tiketak eta abar:

— Jaulkitzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NAN edo IFZ.

— Hartzailea, sozietatearen izena eta IFZ (dirulaguntzaren erakunde onuradunarekin bat etorri behar du).

— Gastuaren xedea.

— Data.

— BEZa: aplikatutako zerga-mota (k).

3. Programen aleak, non Urkabustaizko Udalaren babesa aipatuko den.

Izarra, 2024ko abenduaren 2a

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAJA FERNÁNDEZ DE LANDA